



100 GABON-SASKIREN ZOZKETA

1.- Erakunde antolatzailea eta zozketaren data

Caja Laboral Popular Coop. de Créditos –aurrerantzean LABORAL Kutxa—, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500— duenak, zozketa bidezko sustapen bat egingo du; hain zuzen, 100 gabon-saski zozkatuko ditu, BIOEKOn eskutik. Zozketa 2018ko abenduaren 18an izango da..

2.- Doakotasuna

Zozketa hau doakoa da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

Pertsona fisikoak diren 18 urtetik gorako bezeroek hartuko dute parte zozketan, betiere posta elektronikoa edo gonbidapen-gutuna jaso badute eta parte hartzeko inprimakia 2018ko abenduaren 5a eta 17a bitartean bete badute. NAN bakoitzeko sari bat baino ez da emango. Zozketa prozedura informatikoen bidez egingo da.

Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak.

Irabazleek egunean eta positiboan izan behar dituzte entitatearekin kontraturiko produktuak eta/edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Bestela, saria baliogabetzeko eskubidea erabili ahal izango du entitateak.

4.- Zozketa

Zozketa 2018ko abenduaren 18an egingo da, ausazko sistema informatiko bidez, jakinarazpenean adierazitako epealdietan zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean.

Gainera, ordezko 10 izen aterako dira, badaezpada, irabazleak baldintzak betetzen ez baditu ere.

3 egun balioduneko epean saridunarekin harremanetan jartzerik ez badago Entitatearen datu-basean bezero horretaz dauden datuak erabiliz, saria lehen ordezkoarentzat izango da eta, ondoren, hurrengoentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz.

5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

100 Bioeko gabon-saski zozkatuko dira. Saskiak abenduaren 20tik aurrera banatuko dira bulegoetan.

6.- Sariaren fiskalitatea

Sariari indarrean dagoen legedian ezarritako zerga dagokio. Sariak zerga-karga ekonomikorik badu, LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko. Zergaren alorreko gastu guztiak irabazlearen kontura izango dira.

7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, LABORAL Kutxari baimena eman behar dio bere izen-abizenak saritu gisa argitaratzeko, Entitateari sustapen hau hedatzeko egokiak iruditzen zaizkion argitalpenetan edo komunikabide telematikoetan. Baimena eman ezean, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoari emango zaio.

8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita sustapena geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere.

Bezeroak zozketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek oso-osorik onartzea. Oinarriok hemen kontsulta daitezke: www.laboralkutxa.eus.